

**NIK, EDURNE ITURBE LASCURAIN ANDREAK, ESKORIATZAKO UDALEKO IDAZKARIAK, HONAKO HAU**

**ZIURTATZEN DUT:**

**Udalbatzarrak, 2015eko irailaren 22an egindako bilkuran, ondoren hitzez hitz transkribatzen den erabaki hau hartu zuela.**

**4.- HONDAKINAK SELEKTIBOKI BILTZEKO SISTEMA AUKERATZEKO HERRI GALDEKETA EGITEKO ERABAKIA.**

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak uste du Eskoriatzarrek argi eta garbi egin nahi dutela hondakin bilketa selektiboaren alde, bilketa selektiboa hondakin gutxiago sortzearekin hasi eta hondakinak berrerabili eta hondakinei balioa handitzearekin -horretarako oinarritzat izanik egoki biltzea- amaitzen den prozesu baten zati bezala ulertuta.

Kontuan izanik komenigarritzat jotzen dela herri galdeketa bat egitea ofizialki ezagutzeko udal honetako hautesleek hondakinak selektiboki biltzeko sistema egokienari buruz duten iritzia, Udalbatzarrak, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak horrela proposatuta, 2015eko uztailaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, Eskoriatzako Alkateari hondakin bilketa sistema herri galdeketa bidez aukeratzeko dagozkion tramiteak hasteko eskatzea erabaki zuen.

Erabaki hori betez, hondakinak selektiboki biltzeko sistemari buruz herri galdeketa egiteko egon daitekeen aukerari buruzko txostena egiteko eskatu zion Alkateak Idazkariari. Txosten hori 2015eko irailaren 1ean egin da.

Kontuan hartu beharrekoak:

A.- Kotsultak bat etorri behar du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legean eta horrekin bat datozen gaineko arauetan aurreikusitakoekin.

B.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera, auzotarren intereserako berebiziko garrantzia duten udalaren eskumeneko eta toki-izaerako arazoei buruzko herri galdeketa egin ahal izango dira, Toki Ogasunarekin lotutako arazoei buruzkoak izan ezik.

C.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 71. artikulua eskatzen du proposamena osoko bilkurako gehiengo osoak onartu behar duela eta galdeketa egiteko Estatuaren Gobernuko baimena beharko dela aurrez.

Horiek horrela, Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako diktamena eta IRABAZI Eskoriatza udal taldeak egindako zuzenketa ikusita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, legezko gehiengo osoaren quoruma osatzen dutena, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



**LEHENENGOA.**- Hondakin bilketa selektiboari buruzko herri galdeketa deitzeko proposamena onartzea, egin beharreko galdera honako hau izanik:

*HONDAKINAK SELEKTIBOKI\* BILTZEKO HIRU SISTEMA HAUETATIK, ZEIN NAHI DUZU ESKORIATZAN ERABILTZEA? (jarri X bat zure aukeran)*

*A.- Edukiontzi kolektiboak (5. edukiontzi sistema)*

*B.- Edukiontzi indibidualak (atez ateko sistema)*

*C.- Edukiontzi kolektiboak eta indibidualak (sistema mistoa)*

*\* Bilketa selektiboa da hiri hondakin solidoak sortzen diren unetik bertatik bereiztea, hau da, hasiera-hasieratik edukiontzi ezberdinetan sailkatzea, gero birziklatu ahal izateko.*

**BIGARRENA.**- Estatuko Gobernuari (Ogasuna eta Administrazio Publikoetako Ministerioa) dagokion baimena eskatzea, eta horretarako, Alkateak dagozkion gestioak egitea eta dagokion dokumentazioa bidaltzea.

**Eta jasota gelditu dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, ziurtagiria hau egiten dut Alkate jaunaren oniritziarekin. Eskoriatzan, 2015eko irailaren 23an.**

**O.E.:**

Alkatea.



**DÑA. EDURNE ITURBE LASCURAIN, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

**CERTIFICA:**

**Que el Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 22 de setiembre de 2015, adoptó el acuerdo cuya copia literal se transcribe a continuación:**

**4.- ACUERDO DE CELEBRACION DE UNA CONSULTA POPULAR PARA ELEGIR EL SISTEMA DE RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS.**

La Comisión Informativa Urbanismo y Movilidad considera que la ciudadanía de Eskoriatza quiere apostar de manea clara por la recogida selectiva de residuos , entendida esta última como parte de un proceso que comienza por la reducción de la generación de residuos y termina en la reutilización y revalorización de los mismos, para lo cual es fundamental su adecuada recogida.

Resultando que se considera aconsejable celebrar una consulta popular al objeto de conocer oficialmente la opinión de los electores de este municipio sobre el sistema de recogida selectiva que consideren más idóneo, es por lo que la Corporación en Pleno, en sesión celebrada el 28 de julio de 2015 y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad, adoptó, entre otros, el acuerdo de solicitar al alcalde de Eskoriatza a que iniciara los trámite oportunos para someter a consulta popular el sistema de recogida de residuos.

En cumplimiento de dicho acuerdo, por la Alcaldía se requirió a Secretaría al objeto de que emitiese informe sobre la posibilidad de celebrar una consulta popular en este municipio sobre el sistema de recogida selectiva de residuos. Dicho informe ha sido emitido con fecha 1 de setiembre de 2015.

Considerando que:

A.- La consulta debe ajustarse a lo previsto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL- y demás normativa concordante.

B.- De conformidad con lo dispuesto en el 71 de Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, pueden ser objeto de consultas populares los asuntos de la competencia propia del municipio y de carácter local que sean de especial trascendencia para los intereses de los vecinos; con excepción de los relativos a Hacienda Local

C.-El art. 71 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL- exige que la propuesta se apruebe por el Pleno, por mayoría absoluta, así como que se disponga de previa autorización del Gobierno del Estado.

A la vista de todo lo expuesto,

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad, así como la enmienda presentada por el grupo municipal IRABAZI Eskoriatza, y con el voto a favor de todos los corporativos presentes, que constituyen el quorum de la mayoría absoluta legal, el Pleno ACUERDA:



**PRIMERO.-** La aprobación de la propuesta de convocatoria de una consulta popular en relación a la recogida selectiva de residuos y en los siguientes términos:

¿DE ENTRE ESTOS TRES SISTEMAS DE RECOGIDA SELECTIVA\* DE RESIDUOS , CUÁL QUIERE QUE SE UTILICE EN ESKORIATZA? (marcar con X el elegido)

A.- Contenedores colectivos (Sistema 5º contenedor)

B.- Contenedores individuales (Sistema Puerta a Puerta)

C.- Contenedores colectivos más contenedores individuales (Sistema mixto)

\* La recogida selectiva es la separación en origen de los residuos sólidos urbanos mediante su depósito en diferentes contenedores para que puedan ser reciclados.

**SEGUNDO.-** Solicitar la preceptiva autorización al Gobierno del Estado (Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas), a cuyo efecto la Alcaldía realizará las gestiones oportunas y remitirá la documentación correspondiente.

**Y para que conste y surta los efectos oportunos, se extiende la presente con el visto bueno del Sr. Alcalde, en Eskoriatza a 23 de setiembre de 2015.**

**VºBº**

EL alcalde,